



EUSKAL HERRIKO ARGAZKILARI TALDEEN ELKARTEA
FEDERACION AGRUPACIONES FOTOGRAFICAS PAIS VASCO

2017ko KONGRESUA

Maiatzaren 20an ospatuko dugu ARGIZAIOLA JAIALDIA 2017. PHOTOKA (Gernikako Photoka Argazkilaritza Elkartea) izango da aurten gure anfitrioi.

Honakoa da jardunaldiaren egitaraua:

9:00 Harrera eta gosaria Musutruk Kafe Antzokian, Industria kaleko 10ean.

9:30 Federazioaren Ohiko Batza Nagusia Elai-Alai Aretoan (Foru plaza 2), Udaletxeko plazan, Kultur Etxearen ondoan.

12:30 Bisita Jon Beristain argazkilaria erakusketara. Kultur Etxeko erakusketa gelan izango da ekitaldia, Kongresurako erabiliko den aretotik metro gutxira.

GIZA SENA Erretratuak

Herri baten bizitzan behar-beharrezko zaizkigun pertsonen -edo pertsonaien- erretratu psikologikoak, Gernikaren makineria osatzen duten lagunen irudiak. Horrelakoei esker baita Gernika benetan bizitzeko lekua, oraindik ere pertsonen arteko hartu-emana, konfiantzazkoaren aholkua, ezagun ditugunekiko komunikazio hurbila, behin eta berriroko eta etenik gabeko agurra nagusi direneko tokia munduan.

13:30 Bisita Gernikako Batzar Etxera eta taldearen argazkia Gernikako Arbola beneratuaren magalean.

14:45 Bazkaria Zallo-Barri jatetxean, Juan Calzada kaleko 79an.

Bazkalostean **CEF** tituluak banatuko dira:

ECEF, Juan Antonio Palacios eta Andres Indurain; **MCEF**, Asier Garagarza eta Pedro Luis Ajuriaguerra; **ZILARREZKO MCEF**, Miguel Cabezas; **BRONTZEZKO MCEF**, Miguel Cabezas eta Manuel Barreiro; **ACEF**, Oskar Gaskon eta Javier Ortiz Moreno.

FIAP tituluak:

EFIAP (Excellence Fiap), Pedro Luis Ajuriaguerra, Juan Antonio Palacios eta Miguel Cabezas.

Jardunaldiari amaiera emateko **Argizaiola 2017** sarien banaketa gauzatuko da.

Miembro de la CONFEDERACIÓN ESPAÑOLA DE FOTOGRAFÍA
Miembro de la FEDERACIÓN INTERNACIONAL DE ARTE FOTOGRÁFICO

Apartado N° 6.367, 48080-Bilbao

<http://www.federacionfotovasca.org/>
e-mail: info@federacionfotovasca.org



EUSKAL HERRIKO ARGAZKILARI TALDEEN ELKARTEA
FEDERACION AGRUPACIONES FOTOGRAFICAS PAIS VASCO

Kongresuan parte hartzeko interesa duzuenok, jar zaitetze harremanetan anfitrioiarekin photoka@photoka.net helbide elektronikora mezua bidalita.

Egun guztirako prezioa 35 €-ekoa izango da, eta eskertuko genizueke ordainketa aurreratzea Gernikako Photoka Argazkilaritza Elkarteak Kutxabanken daukan diru-kontua erabilita. Kontu-zenbakia: ES 13 2095 0043 10 9110597301

Aurreko urteetan bezala, argazkien trukaketa egingo da. Etortzen zaretenok, bidali mesedez aukeratzen duzuen irudiaren artxiboa gorago aipatutako helbide elektronikora. Erresoluzioa, 250 ppp eta gehienezko tamaina, berriz, 45 cm.

Inprimaketa lanak errazte aldera, maiatzaren 8a izango da fitxategiak bidaltzeko azken eguna.

Juan Armentia

EHATE-FAFPVren presidentea

Miembro de la CONFEDERACIÓN ESPAÑOLA DE FOTOGRAFÍA
Miembro de la FEDERACIÓN INTERNACIONAL DE ARTE FOTOGRÁFICO

Apartado N° 6.367, 48080-Bilbao

<http://www.federacionfotovasca.org/>
e-mail: info@federacionfotovasca.org